



OSTALARITZA ESTABLEZIMENDUEN
ONDORENGOTZA
SUSTATZEKO LAGUNTZA ZERBITZUA



GIPUZKOA
HOSTELERÍA - OSTALARITZA



Bazkidearentzat abantailak

- ✓ **Ostalaritzako enpresaburuen babesa.** Sektorearekin zerikusia duten organo erabakitzaile nagusietan parte hartzen dugu.
- ✓ Bazkide eta langileentzat doako **prestakuntza eta lan-poltsa.**
- ✓ **Aholkularitza doan** hainbat arlotan: udalekin harremana, terrazak jartzeko baimenen eskaera, obren diseinu eta kudeaketa, ikuskaritza energetikoa, etab.
- ✓ Sektoreko **araudi eta promozioei buruzko** unean uneko **informazioa.**
- ✓ **Lan, zerga eta kontabilitate arloetako gestoria zerbitzuetan kuota oso lehiakorrak.** Lege-prozeduretan, abokatuen ordainsarien gaineko deskontuak. **Aurrekontua eskatu.**

OSTALARITZA ESTABLEZIMENDUEN ONDORENGOTZARAKO LAGUNTZA ZERBITZUA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza, Landa Garapen eta Turismo sailarekin elkarlanean, zerbitzu berria jarri du martxan Gipuzkoako Ostalaritza Elkartek, erretiroa hartu eta euren negozioa eskualdatu nahi duten ostalariei laguntzeko.

Bazkideei laguntzeko erremintak eskaini nahi dizkiegu, euren establezimenduen ondorengotza prozesua gauzatu ahal dezaten bermatzeko; eta, halaber, negozioen nortasuna manten dadin bultzatzeko.

Negozioa eskualdatuko duen ostalariari prozesu osoan laguntzeko sortu dugu zerbitzua. Horretarako, Gipuzkoako Ostalaritza Elkartek sektorearen zerbitzura eman dituen 38 urteetako eskarmentua, ezagutzak eta profesionaltasuna eskaintzen dizkiogu bazkideari.


***Zure negozioa
eskualdatzeko
prozesuan lagunduko
dizugu***




NEGOZIOEN ONDORENGOTZARI BURUZKO

Iturria: Prospektiker (Gipuzkoako Ostalaritzako 251 elkartekideren lagina)

- 1** Gure lokalen %17ren buru direnek 60 urte baino gehiago dituzte, eta %28, berriz, 51-60 adin tartean dago.




- 2** Ostalaritza-establezimenduen arduradunen %28k erretiroa hartzeko asmoa du hurrengo 10 urteetan (1.100 lokal baino gehiago Gipuzkoa osoan).




DATUAK GIPUZKOAKO OSTALARITZAN

3 Gehienek negozioa familia barruan transmititzeko aukera nahiago dute (inkestan parte hartu dutenen %68).



4 Ostalarien %44k negozioa eskualdatzeko aholkularitza jaso nahiko luke. Ondorengotza-prozesu osoan laguntza izateko aukera baloratzen dute gehienek, eta salmentarako negozioazioan aholkularitza espezifikoak eduki ahal izatea ere eskatzen dute hainbatek.



OSTALARITZA SEKTOREAREN NEURRIRA EGINDAKO ZERBITZUA



Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteko profesionalek sektorearen inguruko eza-gutza zabala dute, eta horren harira sortu dugu ondorengotza prozesuan laguntzeko zerbitzua.

Proiektu berri batean murgiltzen denaren bokazioa; lan-taldeak zuzentzeko gaitasuna; ostalaritzako jarduerari loturiko ezagutza teknikoak eta gestioari dagozkionak; negozioaren etorkizuneko aukerak onestasunez jakinaraztea... Transmisio prozesu baten funtsezko elementuak dira horiek. Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteko profesionalek kontuan hartzen dituzte faktore horiek kasu bakoitza aztertu eta laguntzeko garaian.

Negoziaren eskualdatzea desberdin planteatzen dugu ordeko pertsona aukeratua badago (familiako norbait edo establezimenduko langileren bat) edo norbait bilatu behar bada.

Establezimendua eskualdatu nahi dut eta pertsona egokia topatu dut

- ✓ **Harrera-bilera eta zerbitzua-ren azalpen zehatza.** Informazio datu-orria bete eta transmisio proiektuari hasiera ematea.
- ✓ **Negoziari buruzko informazio gehigarria ematea.** (Kontabilitate eta finantza egoerak; ibilgetua balioztatzea -beharra balego-; lan-taldearen egitura...).
- ✓ **Jarduera eta hautagaiaren profila aztertzea.** Laguntza-zerbitzuak determinatzea (beharra balego) eta proiektuaren aurrekontua prestatzea.
 - Zuzenbide eta merkataritza aholkularitza
 - Kontabilitate eta zerga aholkularitza
 - Zuzendaritzaren prestakuntza-beharrak hautematea:

- Lan-taldeek zuzendaritza
- Kudeaketa ekonomiko-finantzarioa
- Marketina eta posizionamendua
- Jarduera burutzea eta eskaintza osatzea

✓ **Transmisioaren negoziazio prozesua**, familiako protokoloa idaztea eta enpresaren balorazioa egitea (transmisioa egiten duenak eskatzen badu soilik).

✓ **Transmisio-eragiketa** gauzatzea

✓ **Jardueraren jarraipen plana** (1 urte), Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteko laguntza-taldearen eskutik.

Establezimendua eskualdatu nahi dut eta eroslea behar dut

✓ **Harrera-bilera eta zerbitzuaren azalpen zehatza.** Informazio datu-orria bete eta transmisio proiektuari hasiera ematea.

✓ **Negoziari buruzko informazio gehigarria ematea.** (Kontabilitate eta finantza egoerak; ibilgetua balioztatzea -beharra balego-; lan-taldearen egitura...). Zerbitzuaren aurrekontua zehaztea eta konpromiso-kontratua sinatzea.

✓ **Jardueraren analisia** eta "establezimenduaren salmenta koaderno" lantzea:

- Negozioreduaren deskribapena
- Aktiboen balorazioa
- Know-How eta Merkataritza Fondoaren determinazioa
- Negozioreduaren balorazioa
- Jardueraren transmisio-eredua zehaztea

✓ **Erosle potentzialak identifikatzea** eta kontaktuak kudeatzea:

- Neurria eginiko Komunikazio Plana lantzea.
- Elkarteko hedabideen bitartez sustapena egitea:
 - Webgunea
 - Facebook
 - Aldizkaria
 - Bazkideentzako mailinak
- Jardueraren salmenta-prozesuan laguntzea.

✓ **Salmenta prozesua ixtea** eta transmisioa formalizatzea.

Negoziobat erosi nahi dut

✓ **Harrera-bilera eta zerbitzuaren azalpen zehatza.** Informazio datu-orria bete eta erosi nahi den negoziari buruzko datuak jasotzea.

✓ **Informazioa aztertu eta datu gehigarriak eskatzea** (beharra balego). Zerbitzuaren aurrekontua zehaztea eta konpromiso-kontratua sinatzea.

✓ **Ondorengotza burutu nahi duten ostalariak identifikatzea** Gipuzkoako Ostalaritza Elkarteko datu-basean, eta kontaktuak kudeatzea:

- Neurria eginiko Komunikazio Plana lantzea.
- Elkarteko hedabideen bitartez sustapena egitea:
 - Webgunea
 - Facebook
 - Aldizkaria
 - Bazkideentzako mailinak

✓ **Zuzenbide, merkataritza eta zerga aholkularitza** negoziazio prozesu osoan zehar.

✓ **Eragiketa ixtea eta formalizatzea.**

DEI BATEKIN HASTEN DA BIDEA...

Zure ostalaritza-establezimenduan ondorengotza prozesu bati ekin nahi badiozu, deiiezaguzu inongo konpromisorik gabe.

Zure negozioaren transmisio prozesua gurekin partekatzen baduzu, guztiontzat lagungarria izango da, sektorea hobetzeko baliagarria izango baitzaigu. Gainera, zure establezimenduko jarduera eskualdatzean arrakasta lortzeko berme gehiago izan dezazun lagunduko dizugu.

943 31 60 40

relevo generacional@hosteleriagipuzkoa.com

(lone Anza)

GIPUZKOAKO OSTALARITZA ELKARTEA

Almorta, 2 - 20018 Donostia - San Sebastián (Gipuzkoa)

www.hosteleriagipuzkoa.com



Zerbitzu honen
babelea:



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Berrikuntzako, Landa Garapeneke
eta Turismo Departamentua
Departamento de Innovación,
Desarrollo Rural y Turismo